

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 30 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai dira eta guztira 34 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 0,4 puntu balio du eta gainerakoetan 0,8. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez. 	50-60 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	90 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzentzat da**.

1. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

GINI INDIZEAREN ZULOA

Errenta-banaketaren ezberdintasunak neurtzeko erabiltzen diren indizeen artean, *Gini indizea* da ezagunetako bat. Ehun urte beteak dituen koefiziente honek herrialde jakin batean errenta-banaketa nolakoa den esaten digu 0 eta 1 bitarteko balioen bidez. Berdintasun osoko herrialde batean, non denek diru-sarrera berberak dituzten, 0 balioa hartuko luke; eta beste muturrean, desberdintasun osoko herrialde batean, hots, diru-sarrera guztiak bakar baten esku direnean, 1 balioa.

Errealitatean, jakina, koefizientea tarteko balioen artean mugitzen da eta **1** baliagarria da konparaketak egiteko. Hau da, oso erabilgarria da herrialdeen arteko desberdintasunak **2** edota herrialde jakin baten desberdintasun-mailak denboran zehar duen joera aztertzeko. Zentzu horretan, *Gini indizearen* **3** oso garrantzitsua izan da: hankaz gora jarri ditu ohiko Barne Produktu Gordinaren arabeko rankingak. BPGk errenta-maila neurtzen duen **4**, herrialdeen batez besteko errenta-mailarekin lotuta dago eta **5**, pobrezia-mailarekin. Desberdintasunak, **6**, aberastasunaren banaketarekin daude lotuta. Oso herrialde **7** desberdintasun handiak egon daitezkeen modu berean, errenta-maila handiko herrialdeetan ere desberdintasun handiak ezkuta daitezke; Brasilen edota AEBn kasua litzateke.

Gini indizeak gizarte osoan dagoen desberdintasuna **8** du, baina ez digu ezertxo esaten gizartearen baitan gertatzen denaz. Muga horretaz José Gabriel Palma ekonomialari txiletarra ohartu zen XXI. mende hasieran. Herrialdez herrialde biztanleriaren muturrekin zer gertatzen zen aztertuz, ikerketa sakona egin zuen. Horretan zebilela fenomeno politiko kuriosoaz **9** zen: munduko herrialde guztietan klase ertainak aberastasunaren zati berdintsua bereganatzen du, aberastasunaren erdia, **10**. Datuekin frogatu zuen ezberdintasunaren **11** muturretan dagoela; hots, aberastasunaren beste erdia nola banatzen den pobreenen (%40) eta aberatsenen (%10) artean, horretan dagoela gakoa. Hego Amerikako herrialdeetan errenta-desberdintasun handiagoak daude herrialde nordikoetan baino. Baina bi eskualdeetan klase **12** dagokion aberastasuna antzekoa da: klase horrek aberastasunaren erdia eramateko duen gaitasuna errepikatu egiten da herrialdez herrialde. Aberatsenen eta txiroenen kasuan, **13**, emaitzak oso desberdinak izaten dira eskualde batean edo bestean. Ñabardura hori oso baliagarria zaigu, politika publikoak ebaluatzeko bidea ematen duelako.

Txileri begira, Palmak argi ikusten du azken hamarkada hauetako ezker-zentroko gobernuen **14**: desberdintasunak murrizteko saiakerak egin dituzten arren, %10 aberatsenak tinko **15** dio zeukanari. Horrexegatik desberdintasuna oso gutxi murriztu da Txilen eta ezker berriak arrakasta lortu badu gutxieneko soldata eta familia-poltsari esker pobrezia murriztu duelako izan da. Palmaren emaitzek mahai gainean jartzen dute, desberdintasunak murrizteko, politika publikoak %10 aberats horretara zuzentzea **16** dela: egiturazko zerga erreformatzea, zergen iruzurra sakon ikuskatu eta zigortzea, eta paradisu fiskalekin amaitzea.

Txiletik gurera salto eginez, begira diezaiegun gure erakundeei. Oso trebeak dira populazio txiroenaren kalterako murrizketak aplikatzen eta eliteei gero eta pribilegio gehiago **17**. EAEn eta Nafarroan, sozietateen gaineko zergari begiratzea baino ez dago horretaz konturatzeko. Bada, murrizketak pobreenen kontra aplikatu **18**, bidera ditzatela goiko mutur aberatsenak gartzaren zati handiegiaz jabetzeko dituen tresnak gutxitzera.

ELORRIETA, A. *Argia*, 2017ko ekaina. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

- | | | |
|--|--|---|
| 1. a) noski
b) osorik
c) bereziki
d) apika | 2. a) egokitzeke
b) alderatzeko
c) egozteko
d) kudeatzeko | 3. a) izaera
b) aterpea
c) eredua
d) ekarpena |
| 4. a) bezala
b) heinean
c) moduan
d) arabera | 5. a) horrenbestez
b) alegia
c) ordea
d) behintzat | 6. a) ere bai
b) alajaina
c) hots
d) ostera |
| 7. a) txiroetan
b) handietan
c) aberatsetan
d) garatuetan | 8. a) murrizten
b) kudeatzen
c) islatzen
d) esleitzen | 9. a) mintzatu
b) aritu
c) damutu
d) jabetu |
| 10. a) batik bat
b) jakina
c) alegia
d) bederen | 11. a) maila
b) muina
c) kopurua
d) gaina | 12. a) xeheari
b) ertainari
c) gorenari
d) altuenari |
| 13. a) aldiz
b) ordez
c) hori dela eta
d) bestela | 14. a) porrota
b) beherakada
c) galera
d) kaltea | 15. a) utzi
b) ekin
c) eman
d) eutsi |
| 16. a) doakoa
b) ezinezkoa
c) ezinbestekoa
d) ezohikoa | 17. a) igortzen
b) aitortzen
c) gainditzen
d) jabetzen | 18. a) ordez
b) ezean
c) ezik
d) ez ezik |

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

GENEAK NAHIERAN ALDATZEA: NON DAUDE MARRA GORRIAK?

DNA mozteko eta itsasteko gaitasuna eskuratu genuenetik, gaitasun hori gaixotasun genetikoak konpontzeko erabiltzea izan da gure nahia. Saiakerak egin ziren, “terapia genetiko” izenez ezagutzen direnak, baina emaitzak ez ziren espero zirenak izan. Hala ere, azken bizpahiru urteetan, geneak konpontzeko ideiak berriro hartu du indarra CRISPR teknikari esker. Teknika horrek aukera emango du gene zehatz batean nahi den aldaketa egiteko, oso modu espezifikoan eta genomaren gainerako osagaiak aldatu gabe. Horrek atea irekitzen dizkio geneak nahieran aldatzeari. Eta, dagoeneko, Estatu Batuetan CRISPR bidezko lehen terapia genetikoaren saiakerak onartu direnetik eta Txinan lehen saiakerekin hasi direnetik, teknika horren erabileraren mugei buruzko eztabaida sortu da.

Demagun gaixotasun genetiko hilgarri baten genea konpontzeko gai garena eta, hortaz, gaixo hori sendatzeko gai garena. Gehienok ados geundeke, aukera izanez gero, konponbidea erabiltzeko, izan CRISPR, izan antzeko beste teknika bat. Gehienon ustez, ankerkeria izango litzateke sendagai edo konponbide bat erabiltzeko aukera izanik ez erabiltzea. Baina geneak nahieran aldatzeko orduan, badira erresistentziak.

Geneak aldatzeko zuhurtzia hori ulertzeko, iragan gordin eta beltza gogoratu behar dugu: eugenesia. Mugimendu horrek aldarrikatzen zuen gizakion ondare genetikoak ezaugarri kaltegarriak kentzea, gizaki osasuntsuagoak eta sendagoak izateko. Aldarrikapen haiek praktikan jarri zituztenean, antzute behartuak eta genozidioak eragin zituzten. Hortaz, ez da harritzekoa ezaugarri genetikoak nahieran aldatzeko gaitasunak kezka sortzea.

Bestalde, auzia honetan ere badatza: zer da gaixotasun bat? Zer, ezaugarri kaltegarri bat? Beren material genetikoak sortutako sindrome bat duten pertsona askok ez dute beren burua gaixotzat jotzen. Horrela jaio dira, horrelakoak dira, eta, hortaz, beren ustez ez dago zer konpondu edo osatu. Hil ala biziko gaixotasunetatik urrunduta, geneak aldatzearen auzia ez da hain argia. Zuhurtziak iradokitzen digu kasu bakoitza aztertzea eta, betiere, azken erabakia norberak

hartzea, ez arau orokor bat ezartzea, beste edozein sendagairekin egiten den bezala.

Inozoak izango ginateke pentsatuko bagenu genomak editatzeko gaitasuna hil ala biziko kasuetan bakarrik erabiliko dugula. Kirurgia bizitzak salbatzeko ez ezik, aldaketa estetikoak egiteko ere erabiltzen da. Begi-kolorea aldatzeko, ukipen-leiarrak erabiltzen dira; izpi ultramoreak hartzen dira beltzago egoteko, edota ebakuntza egiten da zimurrak kentzeko. Hori guztia geneen edizioaren bidez (begi-kolorea zehazten duten geneak aldatuz edota azaleko melanina-produkzioa areagotuz) lortzeko aukera balego, batek baino gehiagok erabiliko luke aukera hori, eta nork eskaini ere egongo litzateke. Baina, nola edo hala, mugatu egin beharko litzateke ala, kirurgia estetikoarekin egiten den bezala, bakoitzaren ahalmenaren esku utzi? Hor, mugak lausoak direla iruditzen zait, eta ez dagoela erantzun errazik.

Orain arte, marra gorri bat onartzen zen: egindako aldaketa genetikoak hurrengo belaunaldira ez transmititzea. Hau da, norbanako bati aldaketa genetiko bat egiten bazaio, berari bakarrik eragitea eta bere oinordekoei ez transmititzea. Horrela, pertsona batengan egindako aldaketek ez lukete eraginik izango espezie osoaren ondare genetikoan. Egia esan, hori *de facto* horrela da, konpontzen diren geneak zelula edo ehun jakinetan bakarrik aldatzen baitira eta, hortaz, ezin dira hurrengo belaunaldietara transmititu. Hori horrela izateko, obulu edo espermatozoideen material genetikoak aldatu beharko litzateke eta, oraingoz, ez da egiten.

Baina gai horretan ere, eztabaida zabaldu da: pertsona baten gene bat aldatu eta, horrenbestez, seme-alaben geneak ere aldatu behar dira, ala zuzenean akatsik gabeko geneak transmititu behar dira? Alegia, gaur egun enbrioak hautatzen diren bezala, enbrioia sortzeko obulu eta espermatozoideetan edo enbrioian bertan egin behar dira aldaketak, akatsa duen genea konpontzeko? Hori arestian aipatutako eugenesia “biguntzat” jo genezake, ezaugarri kaltegarriak espezieetik desagertuko lirateke eta. Baina nork erabakitzen du zer den ezaugarri kaltegarri bat?

Azken finean, eztabaida guztia honetan labur daiteke: nola arautu behar ditugu genomen ediziorako tekniken erabilerak? Hori zientziatik harago doan eztabaida da, eta gizartean, denon artean, adostu eta hitzartu behar dugu. Batetik, nahitaezkoa izango da gai hau arautuko duten balizko legeak argiak izatea. Bestetik, baimenak

emango dituzten etika-batzordeetan konfiantza izatea eta profesionaltasunez arituko direla ziurtatzea ere ezinbestekoa izango da, orain arte ikerkuntzan gertatu den bezala.

GARCIA, K. *Elhuyar*, 2017ko ekainaren 1a. Egokitua

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

19. Zertan datza CRISPR teknika?

- a) Geneak eta bere osagaiak aldatzean.
- b) Geneak edonola aldatzean.
- c) Gene jakinetan hainbat aldaketa egitean.

20. Zer dago eztabaidan?

- a) Geneak aldatzeko aukera izatea.
- b) Teknika horren erabileraren mugak.
- c) AEBn eta Txinan erabiltzen hasiak izatea.

21. Zergatik daude erresistentziak teknika horren aurrean?

- a) Eugenesia gogorarazten digulako.
- b) Iraganean genozidioak eragin zituelako.
- c) Gizakion ondare genetikoa galduko genukeelako.

22. Zertan da auziaren zailtasuna?

- a) Ezin delako arau orokor bat ezarri; kasuan kasuko azterketa egin eta norberak erabaki behar du.
- b) Hil ala biziko gaixotasuna ez bada, ez litzatekeelako zilegi izango teknikaren erabilera.
- c) Ezaugarri kaltegarria zer den zehaztu arte, material genetikoak sortutako sindromeak ez direlako gaixotasunak.

23. Zer dela eta aipatu du artikulugileak kirurgia?

- a) Erabakia norberaren esku izan beharko lukeela argudiatzeko.
- b) Genomak editatzeko gaitasuna ez dugula hil ala biziko kasuetan soilik erabiliko adierazteko.
- c) Geneak aldatzeko gaitasunak kirurgia estetikoaren alorrean dituen aukerak azaltzeko.

24. Zer dio testuak aldaketa genetikoak transmititzeari buruz?

- a) Horrek eragina izango lukeela espeziearen ondare genetikoan.
- b) Ez dela posible obulu edo espermatozoideen material genetikoa aldatzea.
- c) Marra gorria gainditu eta zuzenean akatsik gabeko geneak transmititu behar direla.

25. Zeri esaten dio Garciak eugenesia “biguna”?

- a) Pertsona bati konpondutako genea gero bere seme-alabei ere konpontzeari.
- b) Akatsa duen genea konpontzeko enbrioak hautatzeari.
- c) Enbrioian aldaketak eginda, ezaugarri kaltegarriak espezieetik desagerrarazteari.

26. Zer arazo azaleratzen du egileak?

- a) Medikuak ala gaixoak, nork erabakiko duen.
- b) Ezaugarri kaltegarria zer den zehaztea ezinezkoa dela.
- c) Geneetan konpon daitezkeen akatsak zein diren zehaztu beharra.

3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu testu zatia dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (27, 28, 29...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

HOTZA ETXEETAN

Otsaila hilabete hotza da, hotz-hotza batzuetan. Garai horretan Siberiako aire-masak Europako mendebaldera mugitzen dira eta, oro har, temperatura jaitsarazten dute. **27**

Hotz polar hark Europa erdia astindu zuen, eta hura gogoratzeko, zenbait elkartek, hala nola Ingurumen Zientzien Elkartek edo Energia-eredu berri baten aldeko plataformak (Euskadin, Gure Energia), otsailaren 17a aldarrikatzen dute Energia-pobretasunaren kontrako Europako Eguntzat.

Pertsona askok beren etxebizitza gutxieneko erosotasun-egoeran mantentzeko duten zailtasuna da energia-pobretasuna. **28** Energia-pobretasuna pobretasun mota berezia da, eta gero eta garrantzi handiagoa dauka, batez ere energiak, gaur egun, biztanleen ongizatean eragin handia duelako. Funtsezko ondasun komuna da energia, bizimodu duina ahalbidetzen duena, eta hori ezinbestekoa da etxebizitza bat izateko benetako eskubidea baliatzeko.

Energia eskuratzeko prekarietateak zerikusia du, jakina, etxeko energia-zerbitzuak (argindarra edo gasa) ordaintzeari aurre egiteko errentarik ez izatearekin. Baina ez horrekin bakarrik.

29 Euskadiko etxebizitzek, batez beste, 40 urte inguru dituzte, eta eraikin asko energia aurrezteko beharrak aintzat hartu gabe jaso ziren. Bestalde, energia-pobretasuna energiaren kostuaren mende ere badago. Horrela bada, Energiaren Euskal Erakundearen datuen arabera, energiaren faktura etxebizitzaren sektorean beste parametro ekonomiko batzuen oso gaintetik areagotu da: 2007an etxe bakoitzeko 718 euro izatetik, 2015ean 1.037 euro izatera igaro da.

Egiaz, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema eta gizarte-larrialdietarako laguntzak baliagarriak izan dira energia-bazterketaren ondorioz txarrenak arintzeko. **30** Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera, 2015. urtean, Euskadiko familietatik %7,7k ezin izan

zuten etxebizitza tenperatura egokian mantendu; hau da, 235.000 lagunek gutxi gorabehera, Eusko Jaurlaritzaren gizarte-beharren gaineko galdetegiaren arabera.

Energia-pobretasunaren arazoa indartsu azaleratu da eztabaida publikoan, nahiz eta oraingoz ez dakigun nola eragingo duen. Espero genezakeena da Estatuko eta Euskadiko berehalako erregulazio batek prekarietate-egoerei aurrea hartzeko balio izatea. **31** Nahiz eta Auzitegi Konstituzionalak, 2016ko martxoko epaian, zalantzan jarri zuen autonomia erkidegoek energiaren sektorean araubide ekonomiko propioa ezartzeko eskumenik ba ote duten, onartzen du esku hartzeko aukera, energia-pobretasuna arintzeko. Oraindik orain onartu den abenduaren 23ko 7/2016 Errege Lege-Dekretuak, gizarte-bonua finantzatzeko mekanismoa arautzekoak, denboran atzeratu egin ditu kontsumitzaile ahulak babesteko beste neurri batzuk.

Testuinguru horretan, Arartekoak gomendio orokor bat egin zuen. Botere publikoei eskatu zien energia-pobretasunaren kontra borrokatzeko euskal plan bat onar zezatela. **32** Era berean, Arartekoak erakundeei galdegin zien egoera txarrean zeuden pertsona guztiei energia-hornidura berma ziezaietela, aldirik larrienetan hornidura eten ez ziezaieten.

Ildo beretik, Arartekoak duela gutxi goraiatu egin ditu zenbait udalek (Irun, Bilbo, Gasteiz eta Donostiakoek, esaterako) energia-enprekin koordinazio-mekanismoak adosteko hartu dituzten neurriak, egoerarik txarrean dauden familien etxeetan energia-hornidura eten ez dezaten. **33** Eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Euskal Herriko Gurutze Gorriarekin lankidetzaren hitzarmen bat amaitu ostean, energia-pobretasunari buruzko hainbat xedapen sartu ditu gizarte-larrialdietako laguntzak arautzen dituen dekretuan.

Energia-pobretasunaren aurkako euskal estrategiaren lehen urratsak dira, dudarik gabe.

34 Jakina, ezer baino lehen, horren ondoriorik larrienak arindu behar dira, adibidez, hornidura-etenak. Hori egin eta gero, Arartekoak harago joatea proposatzen du, energia aurrezten eta eraginkorrago bihurtzen ahaleginak egitea, politika publikoak energia-gastua gutxitzera bideratuz, zaharkitutako etxebizitzak berriztatuz, energia-faktura murriztuz eta etxeetan nork bere energia sortuz.

Europako iparraldeko hotz-boladek orain arte bezala astinduko gaituzte neguko hilabeteetan. Ararteko naizenez, eztabaida publikoa sustatu nahiko nuke Euskadiko etxeetan hotza nabarmenki gutxitzeko edota desagerrarazteko. Ziur nago botere publiko, enpresa, energia-kooperatiba eta kontsumitzaileen arteko adostasunari esker, energia-pobretasunaren kontrako neurri horiek bultzatzeak lagunduko duela helburu hori lortzen.

<www.ararteko.net>, 2017ko otsaila. Egokitua

3. ariketa. Txertatu testu zatia

- A.** Gauzak horrela, gaur egun Estatuko araudirik ez dagoenez, autonomia erkidego batzuek zenbait mekanismo arautu dituzte herritarrak hotzetik eta iluntasunetik ateratzeko.
- B.** Zarauzko Udalak, gizarte-laguntzekin batera, informatzeko eta aholkuak emateko programa bat adostu du energia berriztagarrien kooperatiba batekin, energiaren faktura murrizteko asmoz.
- C.** Alabaina, plan horri ekiteko, lehendabizi talde ahulenak identifikatu behar dira, energia-fakturan nola aurreztu jakinarazteko betebeharra onartu behar da, eta etxebizitzetan energia-eraginkortasuna areagotu.
- D.** Gutxieneko erosotasun hori lortzeko, etxe barruan tenperatura egokia izan behar da, edo argindar nahikoa, eguneroko beharrak asetzeko.
- E.** Aitzitik, energia-pobretasuna murrizteko ahalegina denoi dagokigu eta ezin dugu erantzukizun osoa erakundeen gain utzi.
- F.** Hala eta guztiz ere, Euskadin oraindik ere hainbat pertsona eta familia daude energia-pobretasunaren mende neguan.
- G.** Baina edozein estrategia garatu aurretik, garrantzitsua da arazoa egon dagoela onartzea, eta politika publikoetan berariaz sartzea.
- H.** Oraindik gogoan dugu 1956ko otsail hura, hotzak Euskadi astebete pasatxo harrapatu zueneko.
- I.** Energia-pobretasuna beste faktore batzuekin ere zuzenean lotuta dago, adibidez, energia-eraginkortasunarekin edo energia-fakturarekin.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	27	28	29	30	31	32	33	34
Testu zatiak								

Soberakoa	
-----------	--

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.

- GAIA:** Zerbitzuburu berriak hainbat aldaketaren beharra ikusi du zerbitzuaren funtzionamendua hobetze aldera. Ezer erabaki baino lehen, baina, langileon iritzia jakin nahi du.
- Idatz iezaiozu gutuna zeure iritzia eta iradokizunak azaltzeko: zure ustez arazo larrienak zein diren, zer aldatu beharko litzatekeen, nola, aldaketa horiek nolako onurak ekar litzaketen...

2. ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

EGOERA: Gaixo bat zazpi urtez koman bizirik zuten makinak itzaltzeko erabakia babestu du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak. Erabakiak dio gaixoei hiltzen uzteak ez duela bizitza-eskubidea urratzen eta berriro ere jarri du mahai gainean eutanasiaren inguruko eztabaida.

Gaiaz kezkatuta, herriko aldizkarian idaztea pentsatu duzu.

GAIA: EUTANASIA BERRIRO EZTABAIDAGAI

Sendatzerik ez duen gaixoak hiltzen uzteko eskatzen duenean, gizarte osoak astindu ederra hartzen du.



Gurean ez dago eutanasiaren aldeko edo kontrako legerik. Erreferentzia bakarra Kode Penalean dago: zigorra ezarriko zaio beste baten buru-hilketan parte hartzen duenari.

Iritzi publikoak onarpenaren eta legeztapenaren alde gero eta gehiago egiten duen arren, Europari dagokionez, Belgikan, Holandan eta Luxenburgon baino ez da legala.



Hiru eutanasia mota daude: aktiboa, heriotza eragiten denean; pasiboa, bizitza luzatzeko baliabideak baztertzen direnean; eta, zeharkakoa, mina arintzeko lasaigarriak ematen direnean, horiek ere bizitza laburtzen baitute.

- Lagundu egin behar zaio hil nahi duen gaixoari? Zer kasutan?
- Bizitza ahalik eta gehien luzatzea da medikuen zeregin nagusia?
- Zer da lehenago: bizitza-eskubidea ala heriotza duinaren eskubidea?
- Zenbaterainoko garrantzia du erlijioak gai honetan?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** hutsuneak bete.
- Irakurgaia: «GINI INDIZEAREN zuloa»

1.	C	2.	B	3.	D
4.	B	5.	A	6.	D
7.	A	8.	C	9.	D
10.	C	11.	B	12.	B
13.	A	14.	A	15.	D
16.	C	17.	B	18.	A

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- Irakurgaia: «Geneak nahieran aldatzea»

19.	C	20.	B	21.	A
22.	A	23.	B	24.	A
25.	C	26.	C		

- **3. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.
- Irakurgaia: «Hotza etxeetan »

Hutsuneak	27.	28.	29.	30.	31.	32.	33.	34.
Testu zatiak	H	D	I	F	A	C	B	G

Soberakoa	E
-----------	---